

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Bertizen Bidasoako izokina ezagutzera eman eta errekuperatzeko arrantzaleekin formazio saioa antolatu du Ingurumenak larunbatean

Espezie hori ezagutzera eman eta errekuperatzeko programaren baitan gauzatuko da

Asteazkena, 2019.eko martxoak 6

Larunbat honetan Bidasoako izokina ezagutzera eman eta errekuperatzeko arrantzaleekin [formazio saioa](#) eginga da Ingurumenak antolatuta. Hitzordua Bertizeko Natur Parkeko Jauregian egingo da goizeko 10:00etan hasita.

Ekintza hau [‘Izan zaitez Bidasoako izokinaren babesle’](#) bolondres kanpainaren baitan antolatu du Ingurumen Zuzendaritzak, Foru Erkidegoko [LIFE IREKIBAI](#) proiektuaren baitan, eta Nafarroako Ingurumen Kudeaketak (NIK) koordinatuta. Ekimen honen bitartez, arrantzaleek espezie honen errekuperaketan lagundu eta informazioa zabaltzen lagundu dezakete. Helburua arrantzatutako izokinei ugaltzeko bigarren aukera bat ematea da, arrantzez gozaten jarraitzeko aukera izanez.

Jardunaldian zehar antzeko ekimenak emango dira ezagutzera, esaterako Asturiasen, Enrique Berrocal, Las Mestas del Narcea Arrantzaleen Elkarteko kideak gidatzen duen Arca Proiektua. Berak izokina mantendu ahal izateko arrantza praktiken inguruko beharrezko praktiken inguruan azalpenak emango ditu. Zentzu horretan, beste lekuetan gauzatutako ekimenek arrantza jasagarriak eta arrantzale eta erakundeen arteko koordinazioak izokinak errekuperatzeko baliogarriak direla azaldu dute.

Bigarren aukera

Arrantzatutako izokinak ibaietara markatuta bueltatzen dira eta horrek izokinak ibaian egiten dituen mugimenduen aldiroko informazioa jasotzeko aukera ematen du. Hala, biziraupena, datak, migrazio kaudalak edota izokin bakoitzak ugaltzeko dituen aukerak ezagutuko dira. Gainera, arrantzaleak babestutako izokinaren bilakeraren inguruko informazioa jasoko du.

Beste aukera bat, emandako izokinak Oronoz-Mugairiko arraintegira eramatea izanen da, non erreproduktoreak bilakatuko diren arrainkumeei bide emateko eta modu horretara Bidasoako espezie honen kopuruak igotzeko.

Protokoloak

Bolondres programa honen baitan, era berean, ibaien zainketarako protokoloa zehaztu dute Bidasoan ibarreko hainbat arrantzale elkarteek eta Nafarroako Gobernuak Zuzendaritza Orokorrak, LIFE IREKIBAI

proiektuaren babesarekin.

Protokolo horien sinadurarekin hasieratik espezieen babeserako egiten ari den elkarlana sendotzea da helburua, babesteko ekintza gehiago egin eta gizartearen artean zein kideen artean ingurumen dibulgazioa egiteko. Horren helburua inguruan dauden habitatak eta arrain espeziei mesede egiten dioten balore ekologikoak babestea da.